

2025eko otsaila



Bezala

Euskaltzaindiak ez du berariazko araurik eman *bezala*-ri buruz. Komeni da, hala ere, esatea ez dela egokia gaztelaniazko *como* edo frantsesezko *comme* guztiak *bezala*-rekin ordezkatzea; euskarak baditu molde propio egokiak horretarako. Berez, konparazio-hitza da *bezala*, eta konparazio-perpausetan erabiltzekoa; hortik kanpo, kalko-arriskuagatik, tentuz neurtzekoa da.

Pasa gaitezen, bada, araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Atribuzio-perpausetan, sobera egoten da normalean, eta, molde horretakoetan, ez erabiltzearen aldeko hautua egina dute estilo-liburu askok, nahiz eta literatura-tradizioan presentzia oso ugaria duen euskalki gehienetan, Orotariko Euskal Hiztegian ikus daitekeen bezala; horren adibide dira *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ageri diren hauek, esaterako:

- Guraso *bezala* duten erantzukizuna.
- Hiruretan Lizardik du agian idazle *bezala* entzuterik handiena.

- Soldadu *bezala* joan zen. ***
- Soldadu joan zen.

- Bost urtez aritu zen Donostian irakasle *bezala*. ***
- Bost urtez aritu zen Donostian irakasle.

- Ameriketara joan zen artzain *bezala*. ***
- Ameriketara joan zen artzain.

Izaten da arriskua *-tzat* prolatiboaren ordezkari *bezala* (eta *legez*, *gisa* eta antzekoak) neurriz kanpo erabiltzekoa ere. *Jo / eduki / hartu* eta tankerako aditzek *-tzat* eskatzen dute gehienbat, ez bezala.

- Tonto *bezala* hartu naute. ***
- Tontot*tzat* hartu naute.

- Nagusi *bezala* daukate. ***
- Nagusit*tzat* daukate.

- Adiskide *bezala* hartu ninduten lasartearrek. ***
- Adiskidet*tzat* hartu ninduten lasartearrek.

Ez da egokia *deritzon / esaten zaion / delako* esan nahi delarik, *bezala ezagutzen den* esapideaz baliatzea.

- Getaria *bezala* ezagutua. ***
- Getaria *izenez* ezagutua.

- Superman *bezala* ezagutzen den substantzia hau. ***
- Superman *izenez* ezagutzen den substantzia hau / Superman *delako* substantzia...



Ohiko erdarakadak



✗ *Euria dago.*

✓ *Euria ari du / dihardu.*



✗ *Lanean dago.*

✓ *Lanean ari da / lanean dabil.*



✗ *Gaizki jokutzen dago.*

✓ *Gaizki jokutzen ari da.*

Ari izan ≠ Egon



Jokamolde nagusiaren arabera, erabat bereiztekoak dira *egon*, batetik, eta *ari izan / ibili / jardun*, bestetik. *Egon* estatikoa-edo da; *ari izan / ibili / jardun*, berriz, zerbait dinamikoa.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



UDALAKO EGUNKARIA ≠ UDALETXEKO ORDUTEGIA

Zain dezagun euskara!